

## SAGARRA ETA SAGARDOAREN EGUNA

# Barkaiztegiak sagardoa egingo du plazan

Eskuzko tolare zahar bat ekarri eta plazan sagardoa egingo dute gaur.

Sagarraren eta sagardoaren festa izango da gaur **Tolareak** antolatuta. Goizean, sagar postu mordo jarriko da ikusgai plazan, sagar gehiago nork bildu lehiaketa egingo da, eta nola ez, sagardoa eta pintxoak nahi

duenarentzat izango dira aukeran. Arkupeetan sagardoa egiteko erreminten erakusketa egongo da.

Azken urteetan ohitura bihurtu da Martuteneko Barkaiztegi sagardotegikoek sagardoa plazan bertan egitea.

Eskuzko Tolare bat eta sagar txikitua ekarri eta muztioa aterako diote, baita jendeari probatzeko eman ere. Barkaiztegiak esan digutenez "baserri batzutan badira oraindik horrelako tolareak mar-txan dabilzanak". □

## FUTBOL LIGA

# Hernanik azpeitiarren aurka jokatuko du gaur Zubipen

Hamabosgarren postuan dago Hernani 2 punturekin.



Haurren ohorezko ligakoak Zubipen, atzo, partidua hasi aurretik.

HERNANIKO 3.mailako taldeak partidua du, gaur, 18:00 etan Zubipen, Azpeitiko Lagun Onak taldearen kontra. Badirudi neurriko aurkaria dutela gaurkoa eta irabaztera

irtengo dira etxeakoak. Denboraldi honetan ez du partidurik irabazi oraindik eta 15.postuan aukitzen da (20 ekipo dira) 2 punturekin. Aipatzeko golik ez duela jaso. □

### ·ATZOKO EMAITZAK

Gorengo maila:  
Hernani 0 - Zumaiako 1  
Haurren ohorezko liga:  
Hernani 2 - Eibar 4

## II. TRIKITIXA TXAPELKETA

# Sei bikote gaztek hartuko dute parte

Gaur 11:30etan izango da Gudarien Enparantzan.



KRISKITIÑA taldeak antolatuta, 16 urtez azpikoentzako trikitixa txapelketa izango da gaur plazan. 6 bikote hartuko dute. Hernanikoak hiru: Leire Alvarez eta Itxaso Gasama-

nes; Maitane Arregi eta Nahikari Akuña; eta hirugarrena, Estibaliz Goikoetxea eta Itziar Jauregi. Besteak besteak Azpeitia, Asteasu, Azkoitia eta Ataundik datoz. □

## PELOTA

### Herri artekoan 2 eta 1 galdu Baztanen kontra. Kiroldegian neskek galdu eta mutilek irabazi.

#### Emaitzak:

Esku pelota. Herriarteakoan:  
-Arratza-Arratza 22  
Yubero-San Sebastian 16  
-Baleztena - Huarte 22  
Zabala - Mendizabal 14  
-Alzugarai - Baleztena 21  
Eroizenea - Zabala 22

Palaz. Kiroldegian:  
-Grijalbo - Manzidor 29  
Real Sociadako bikotea 30  
-Lasa - Martinez 19  
Alzatarako bikotea 30  
-Ubarretxena - Galarza 40  
Anoetako bikotea 19



**Hernani Institutua**  
A. Iturriaga - K. Labaka

LANGILEEN FORMAKUNTZARAKO IKASTAROA  
%100 ean HOBEZUZK SUBENTZIONATUA  
Gaitasun profesionalen sistema  
2000/2001 Urtea

Ikastaroak	Orduak	Hasera - Amaiera	Ordutegia
<b>MEKANIKA ALORRA</b>			
CNC fresadoren programaketa eta eragiketa	55	00/10/02 - 00/10/31	6etatik 9etara
CNC fresadoren programaketa	50	01/03/05 - 01/04/02	6etatik 9etara
Elektroneumatika	30	00/11/06 - 00/11/21	6etatik 9etara
Cad-Autocad	45	00/10/09 - 00/11/09	5etatik 8etara
Cad-Autocad	45	00/11/20 - 00/12/21	5etatik 8etara
Cad-Autocad	45	01/01/22 - 01/02/14	5etatik 8etara
Cad-Autocad	45	01/03/05 - 01/03/28	5etatik 8etara
Cad-Autocad	45	01/04/23 - 01/05/21	5etatik 8etara
Kalitate Kontrola	40	00/11/27 - 00/12/21	6etatik 9etara
Kalitate Kontrola	40	01/02/01 - 01/02/22	6etatik 9etara
Kalitate Kontrola	40	01/04/23 - 01/05/17	6etatik 9etara
Makina osagarriak	60	01/01/15 - 01/02/22	6etatik 9etara
Hidraulika	40	01/03/05 - 01/03/26	6etatik 9etara
Elektroidraulika	30	01/05/21 - 01/06/05	6etatik 9etara
<b>ELEKTRIZITATE-ELEKTRONIKA ALORRA</b>			
Instalazaila kameta ateratzeko prestakuntza	60	00/10/02 - 00/11/09	5etatik 8etara
Inst. domotikoen diseinu eta egitura Sist. Zentr.	50	00/11/06 - 00/12/04	5etatik 8etara
Automatismo elektromekanikoak	40	00/10/09 - 00/10/31	5etatik 8etara
Automatismo programagarriak	60	01/01/22 - 01/02/22	5etatik 8etara
Antenen instalaz. montai eta mantenim	30	01/03/12 - 01/03/20	5etatik 8etara
CAD- Elektrikoa	30	01/03/12 - 01/03/27	5etatik 8etara
Instalazio Domotikoen Diseinu eta konfiguraz.	65	01/05/16 - 01/06/21	5etatik 8etara

\* Ikastaro guztiak Astelehenerdik Ostegunera izango dira  
\* Interesatuak eskaera inpresok aurkeztu beharko dituzte. Zentruan jaso daitezke  
\* Informazioa Karmelo Labaka 7 zentruan Tel. 943.55.583.05.50

### INFORMATIKA ARETOKO IKASTAROA

IKASTAROA	DATA	HIZKUNTZA	ORDUTEGIA
WINDOWS + WORD 2000	Urriaren 28tik 6ra	Euskeraz	16tik 20ra
Microsoft EXCEL 2000	Urriaren 16tik 20ra	Euskeraz	16tik 20ra
Microsoft ACCESS 2000	Urriaren 23tik 27ra	Euskeraz	16tik 20ra
WINDOWS + WORD 2000	Urriak 21tik Azaroak 11ra	Gaztelaz	9tik 14ra
INTERNET	Azaroaren 13tik 17ra	Euskeraz	16tik 20ra
FRONTPAGE 2000	Azaroaren 20tik 24ra	Euskeraz	16tik 20ra

#### INFORMAZIO GEHIAGO:

Larramendi kalea 11, 20120 HERNANI. Tfnoa: 943551000  
Ordutegia: Astelehenerdik ostiralera 15tik 22ra. Larunbatak 9tik 14ra.





## INFORMATIKAKO UDAL ARETOA

# “Inguruko herrietan ez dago halako infomatika zerbitzurik”

IMI izenez ezagutzen denak 2500 bazkide ditu. Urrian hasiko dira 20 orduko infomatika ikastaroak eta azaroan, berriz, internetekoak.



Bi lagun arropa aukeratzeko parrokiko roperoan joan den asteazken arratsaldean.

### INFORMATIKA ARETOA

■ **1988-** Eusko Jaurlaritzak, udalaren laguntzaz IMI progama jarri zuen martxan Hernanin enpresetan mikroelektronika industria sartzeko.

■ **1991-** Hernaniko Udak bere gain hartzen du zerbitzu osoa. IMI zena Hernaniko Udal Infomatika Aretoa bihurtu zen.

■ **Gaur,** 500 bazkide ditu eta ekipamendu hau: -25 ordenagailu. -Eskanerra. -Inprimagailua. -Internet zerbitzua.

INFORMATIKA zabaltzeko Jaurlaritzak martxan jarritako proiektua aprobetxatuz, udalak Hernaniko infomatika aretoa sortu zuen. Helburua nagusiak bi ziren: 1) infomatika eta teknologia berriak jedeari hurbildu eta 2) ikasi eta erabiltzeko erraztasunak eman.

**ORDENAGAILUTEGIA**  
Jon Garmendia arduradunak Kronikari esan dionez, infomatika zerbitzuak liburutegiak bezalaxe funtzionatzen du: bazkide egin eta bertako zerbitzu guztiak erabili litezke. Bazkide egiteko hernaniarrek bezala Astigarragakoek 5400 pezeta ordaindu behar dute, eta kanpotarrek, berriz, 10900. Ikastaro bakoitzeko ere beste hainbeste pagatu behar da.

**INFORMATIKAN ONDO**  
Jongarren ustez Hernani ondo dabil infomatika mailan. “7-8 urtetik honuntza maila asko igo da.” Gainera, ez dira gazteak bakarrik etortzen: “76 urteko ikaslerik ere izan dugu.” Bestalde, “herrian bi infomatika denda daude, eta biak ari dira aurrera ateratzen” eta hori bada Hernanin infomatikak duen indarraren erakusle.

**HERNANI.NET**  
Hernanik badu bere lekua internet sarean. Udalak badu web orria (*Hernani.net* sarre-erdara garbian) eta Jon Garmendia berak sagardoari buruzko gunea du (*Sagardoa.com*). Gainera, ba omen da Hernaniri buruzko orri osoa egin nahian dabilen koardila bat ere. □

## ■ HITZ BITAN

### ✓ KIROLDEGIKO TABERNA

**Kiroldegiko taberna itxita dago oraindik.** Badira aste batzuk lehen zeramanak utzi zuela eta oraindik ez du beste inork hartu. Bitartean, zenbait taldek (waterpolokoak, esaterako) horren ondorioak nozitzen ditu eta entrenatu ezinda jarraitzen du, publikoarentzat itxita dagoen ordutegian entrenatu behar izan ten duelako.

### ✓ ALDERDI EGUNA

**Gaur Hernaniko EAJko alderdikide eta jarraitzaileak Salburuan izango dira.** Urtero garaitu honetan bezala, Eusko Alderdi Jeltzaleak Alderdi Eguna ospatzen du Gasteizen, Salburuako zelaian. 100.000 lagun inguru biltzen da eta hernaniarrek ere han izango dira. Bestalde, aurtengoa izango da Salburuako zelaian egiten duten azken urtea; orain, han etxebizitzak doazti eta Gasteiz bertako beste leku batera aldatuko dute ospalekua.

### ✓ UDAL URREKONTUAK

**Bihar hasiko da udal aurrekontuak osatzeko bigarren bilera saioa.** Aste honetan prozesoa azaldu eta herritarren aportazioak jaso ditu udalak. Parte hartzea zabala izan da. Hala ere, batzuek beren burua galdu samartuta ikusten zuten udaletik herri osorako proposamenak eskatu zitzaizkienean. Datorren astean, jasotako proposamenak aztertu eta eztabaidatuko dira.

### ✓ OMENALDIA

**Jose Jabier Zabaleta Baldok omenaldia jasoko du gaur.** Baldok hamar urte egin ditu Frantzia eta Espainiako kartzeletan. Urteurren hori dela eta, Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta, gaur omenaldia egingo diote arratsaldeko zazpietan Tilosetan. Senide, lagun eta jarraitzaileek orain urtebete pasea ikusi zuten Baldo Hernanin azkenengoz, Mertxe Etxeberria alkatearen kargu hartze egunean. □

## AGENDA

### ◆ ERAKUSKETAK

**Hernaniko Udalaletxea:**  
*mende bat bizirik*  
Udaletxean bertan,  
12:00-14:00

**Juan Ramon Perez**  
Oreretarraren Kuadroak  
Txema tabernan.

### ARGAZKI ERAKUSKETA

**AEKri buruzkoa**  
Goizez, sagar azokan.  
Arratsaldez, Garin tabernan.

**Kuba orain hamar urte.**  
Zumardi jatetxean.

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093  
▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
▶ DYA: 943 464622  
▶ Autobusak: 943 556662  
▶ Anbulatorioa: 943 557750

### ✚ FARMAZIAK

▶ Egunez: Chucha  
Kardaberaz, 49  
☎ 943 551793  
▶ Gaez: Chucla  
Kardaberaz, 49  
☎ 943 551793



## SANTA BARBARA

PEUGEOT



PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15  
Tel. 943 551 139 - Fax 943 551 152, 20120 HERNANI

### AUKERAKO AUTOAK

Peugeot 205 Diesela - 5 ate	SS-AW
Peugeot 405 Haize egokitua	SS-AP
Peugeot 405 SRI-Llantak-Haize egokitua	SS-AB
Peugeot 405 Turbo Diesela-Haize egokitua	SS-AG
Citroen AX Diesela - 5 ate	VI-L
Ford Escort Diesela	SS-AK
Opel Astra 'Caravan' Diesel	NA-AJ
Opel Astra Diesela 5 ate	SS-AT
Opel Corsa 'Don Algodon'	SS-AF
Opel Kadett 1.3 - 4 ate	SS-AH
Ford Courier Diesela - Lagundutako direkzioa	SS-AV
Citroen C:15 Diesel 'mixtoa'	SS-AH
Renault Expres Diesel	SS-AS
Suzuki 'Todo terreno'	NA-V

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...

**Jatetxea**

**Venta Berri**  
Arano - Nafarroa  
(948) 51 40 18  
LARUNBATETAN ITXITA

**OKINDEGIA**  
**ANTZIOLA**  
ANTZIOLA AUZOA, 3  
Tel. 943 55 17 91  
HERNANI

**ARIZMENDI**  
*jatetxea*  
**Egunero menu berezia**  
**Asteartetik ostiral eguerdira**  
**1350 pta**  
(gauetan ere bai)  
Ostiraletik igandera  
denboraldiko karta  
**Antziola auzoa, 86**  
**943 55 68 67**  
**20120 HERNANI**